

El Ilustre Colegio de la Abogacía de Gipuzkoa  
Gipuzkoako Abokatuena Elkargo Prestua

Convoca / iragartzen du



PREMIO / SARIA  
**DECANO  
DOMINGO  
ARIZMENDI**  
A LA ÉTICA JURÍDICA  
ETIKA JURIDIKOARI

5. edizioa / 5ª edición  
**2022**



**ICAGI**

ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE GIPUZKOA  
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO PRESTUA



## Sariaren Oinarriak

**LEHENA.** Sariaren xedea Zuzenbidearen jardunean sinesgarritasun etikoaren eta deontologiaren balioak sustatzea izango da, esker ona agertuz horiekiko duten konpromiso aktiboan nabarmentzeagatik Gizarteak balio horiek lanbide juridikoen jardunari naturaltasun osoz loturiko balioak bezala hartzen dituelako.

**BIGARRENA.** Saria urtero ematen da eta Gipuzkoako Abokatuena Elkargo Prestuko Gobernu Batzordearen zeregina izango da deialdi horretarako data erabakitzea.

**HIRUGARRENA.** Gipuzkoako Abokatuena Elkargo Prestuko Gobernu Batzordea izango da Epaimahaia.

**LAUGARRENA.** Gipuzkoako probintzian bizi diren edo horrekin lotura berezia duten legelariak parte hartu ahal izango dute sari horretan.

Hautagai-zerrenda norbanako batek nahiz talde batek osa dezake. Interesatuak edo beste edozein pertsona edo erakundek **2022eko urriaren 28ko 14:00ak baino lehen**, aurkeztuko dute. Hautagaitza edizio helbide elektronikoa aurkeztu beharko da: [secretaria@icagi.net](mailto:secretaria@icagi.net).

Gobernu Batzordeak beste edozein hautagai-zerrenda proposatu eta salbuespen gisa kontuan hartu ahal izango du, baldin eta, aurkeztu ez arren, bere iritziz nahikoa merezimendu betetzen badu.

**BOSGARRENA.** Sariak ez du inolako diru-kopururik izango, baldin eta Gobernu Batzordeak salbuespenez hori izatea erabakitzen ez badu behintzat, pilaturiko ezauzgarri bereziak eta merezimenduak kontuan hartuz. Saria jasotzen duenari saria egiaztatuko duen plaka bat emango zaio. Egoki iruditzen zaion lekuan aurkeztu ahal izango du saria.

**SEIGARRENA.** Gipuzkoako Abokatuena Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak erabakiko du gehiengo absolutuz eta modu arrazoituan, aurkeztu diren hautagaitzen artean. Erabaki hori apelaezina izango da.

**ZAZPIGARRENA.** Gipuzkoako Abokatuena Elkargo Prestuko Gobernu Batzordeak **2022ko azaroan egingo duen** bilkuran erabakiko du daria nori eman.

**ZORTZIGARRENA.** Gobernu Batzordeak edozein unetan baliogabetu ahal izango du sari ematea, saridunaren demerituen berri izaten duenean.

**BEDERATZIGARRENA.** Sariaren banaketa-ekitaldia, Gobernu Batzordeak haren inguruko erabakia hartu ondoren. Sariaren banaketa-ekitaldian Dekano Andre Txit prestua arituko da buru gisa, eta entzute eta handitasunik egokiena ematen ahaleguduko da, Abokatutzaren irudi instituzionala eta gizartean duen oihartzun egokia indartzen dezaketen Justiziako eta Zuzenbideko profesionale nahiz ordezkariet gonbidapenak luzatuz.

**HAMARGARRENA.** Sari honetara aurkezteak bere oinarri guzti-guztiak onartzen direla esan nahi du.